

[Eusk/Cast] Siriako azken gertakarien harira Jarki antolakunde iraultzaileak egiten duen irakurketa

JARKI :: 13/03/2025

Queremos denunciar firmemente la masacre que el grupo ultraderechista Hayat Tahrir al-Sham está llevando a cabo tanto contra minorías étnicas y religiosas de Siria como contra militantes comunistas

[Euskara]

JARKI antolakunde iraultzailetik irmoki salatu nahi dugu Hayat Tahrir al-Sham talde ultraeskuindarra Siriako hainbat eskualdetan burutzen ari den sarraskia, minoria etniko zein erlijiosoetako kideak eta militante komunistak jopuntuan dituen.

Pasa den urteko abenduan, Mendebaldeak aurrera eramandako 14 urteko eraso inperialista bortitzaren ostean, Siriar gobernu herrikoia eraistea lortu zuten. Hau, bereziki, Turkia eta entitate sionistaren mesedetan gauzatu zen. Lehenak, ideologia neotomandarrari jarraiki, bere mesedepeko gobernu bat ezartzea lortu zuen, Siria iparraldeko turkifikazio prozesua oztoporik gabe sakontzea eta zonaldean eragin politikoa irabaztea ahalbidetu diona. Bigarrenak, historikoki aurre egin dion estatu siriarra deuseztatzea, Siria hegoaldearen okupazioa handitzea eta Erresistentzia Ardatza erdibitzea eta ahultzea lortu du.

Horrek, halabeharrez, Asia Mendebaldeko herri langileak kokatzen ditu galtzaile nagusi gisa. Palestinar eta Libanoar erresistentziek Iranekin zuten lur bidezko konexio zuzena galdu dute, erretagoardia eta funtzio logistikoetan ezinbestekoa zen herrialde bat desegitea lortu baitute.

Horrela, talde salafista ultraeskuindarrek Sirian boterea hartu zutenetik, etengabeak izan dira beren ikuspegi atzerakoi eta sektarioarekin bat egiten ez dutenen aurkako jazarpena eta erailketak, medioen isiltasun konplizearen aurrean. Azken egunotan, gainera, talde atzerakoi hauen kontra antolatzen ari diren erresistentzia talde herrikoien aurka jo dute eta erailketa masiboak burutu dituzte.

Testuinguru honetan, ezinbestekoa zaigu Euskal Herria zapaltzen duten espainiar eta frantziar estatuek sarraski honetan duten erantzukizuna seinalatu eta salatzea. Biek ala biek talde erreakzionarioen botere-hartzea babestu eta zilegiztatu dute eta, hortaz, krimen hauen errudun zuzenak dira.

Era berean, halako gertakariak balizko bloke inperialista ezberdinen arteko talka baten ondorio direla baieztatzen duen ildo politikoa borrokatu beharra dagoela uste dugu. Izan ere, Hegoalde Globaleko herri langileek inperialismoaren, hau da, Mendebaldeko inperialismoaren aurka burutzen duten borroka desitxuratu eta aurrera daramatzaten askapen prozesuen alde lerratzea eragozten baitu.

Azkenik, gure babes osoa adierazi nahi diegu Siriako kostaldean talde salafista ultraeskuindarrei aurre egiten ari zaizkien erresistentzia talde herrikoiei.

Siriar erresistentzia herrikoia babestu!

Salafismoa, sionismoa eta inperialismoa borrokatu!

[Castellano]

Desde la organización JARKI queremos denunciar firmemente la masacre que el grupo ultraderechista Hayat Tahrir al-Sham está llevando a cabo tanto contra minorías étnicas y religiosas de Siria como contra militantes comunistas en varias regiones de país.

En diciembre del año pasado, tras 14 años de brutal ofensiva imperialista encabezada por Occidente, lograron derribar el gobierno popular sirio. Esto se materializó, especialmente, en beneficio de Turquía y de la entidad sionista. El primero, fiel a su ideología neotomanista, logró establecer un gobierno favorable a sus intereses, lo que le ha permitido seguir profundizando en el proceso de turquificación que está llevando a cabo en el norte de Siria y ganar así influencia política en la región. El segundo, ha logrado deshacerse de un estado sirio que históricamente le ha hecho frente, aumentar la ocupación del sur de Siria y dividir físicamente al Eje de la Resistencia.

Esto sitúa, inevitablemente, a los pueblos trabajadores de Asia Occidental como los principales perdedores. Con la caída de Siria, las resistencias palestinas y libanesas han perdido su conexión terrestre con Irán, al haber quedado desmantelado un país esencial en las funciones de retaguardia y logística para las fuerzas de progresistas de la región.

Así, desde que el grupo ultraderechista HTS asumiera el poder en Siria, las persecuciones y los asesinatos contra quienes no comparten su visión reaccionaria y sectaria han sido constantes, todo ello frente al silencio cómplice de los medios. En los últimos días, además, los crímenes han sido dirigidos contra los grupos de resistencia popular que se están organizando para combatir a las organizaciones reaccionarias citadas.

Ante esta tesitura, y siendo Euskal Herria una nación oprimida por los estados español y francés, nos es imprescindible señalar y denunciar la responsabilidad que dichos estados tienen en la masacre que estamos presenciando. Ambos han avalado y legitimado la toma de poder de los grupos reaccionarios y por lo tanto, son culpables directos de estos crímenes.

Asimismo, creemos que es necesario combatir las posturas políticas que sitúan este tipo de hechos en el marco y como consecuencia de un choque entre supuestos bloques imperialistas enfrentados. Esto, desvirtúa completamente la lucha que los pueblos trabajadores del Sur Global llevan a cabo contra el imperialismo, es decir, contra el imperialismo Occidental, y entorpece el apoyo que desde el centro imperialista debemos brindar a dichos procesos emancipatorios.

Por último, queremos expresar todo nuestro apoyo a los grupos de resistencia popular que se están enfrentando a los grupos salafistas ultraderechistas en las costas de Siria.

¡Apoyemos a la resistencia popular siria!

¡Luchemos contra el salafismo, el sionismo y el imperialismo!

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-siriako-azken-gertakarien>